

**EBALUAKETA BAKOITZAREN NOTA**

Ebaluaketa bakoitzean 2 nota lortuko dira eta **ALTUENA** aukeratuko da, ebaluaketa nota bezala.

\***NOTA 1:** lortuko da kontuan hartuta ebaluaketa zehar egindako **KONTROLAK/LANAK ETA ABAR** (%20 ETA%40-REN ARTEAN) eta **EBALUAKETA AZTERKETA** (%80 %60-REN ARTEAN).

\*Ebaluazio-azterketan gutxienez **4 puntu atera behar dira**, 10etik, **kontroletan eta beste lanetan ateratako notekin** batez bestekoa egin ahal izateko.

\* **Kontrolak ez dira errepikatzen**, faltatzen bada bere ponderazioa ebaluaketaren azterketara batuko da.

\***Kontrolak soilik erabiliko dira nota igotzeko**. Mintegiko kide bakoitzak erabakiko du noiz, zer( materia) eta zenbat kontrol egingo duen.

\***NOTA 2: EBALUAKETAREN AZTERKETA** 10-tik. Azterketa berdina talde guztietan jarriko da.

\*Ebaluazio baten ordu kopuru osoatik % 20ko hutsegite edo gehiago zuritu gabe dituen ikasleak ebaluazio jarraituaren eskubidea galduko du, ebaluazio azterketa eta errekupeazioa egiteko eskubidea ere galduko du eta kurtso bukaerako azterketara aurkeztu beharko da (maiatza-ekaina).

\*Azterketak errepikatuko dira: Gaixotasunarengatik, ziurtagiri medikua derrigorrezkoa da edo senide baten heriotzarengatik. Onartuko ez diren ziurtagiriak:

- 1.- Ikastetxetik kanpoko azterketak
- 2.- Ikastetxeak ez antolatutako ekintzetan parte hartzea.
- 3.- Kontsulta medikoak.

\*Azterketaren errepikapena, ikasgaiaren ebaluazioaren errekupeazioaren datan, egingo da. Azterketa ez bada gainditzen, beste aukera bat egongo da ebaluaketa errekupeatzeko.

✓ **NOTA1 ETA NOTA 2-an JARRERA kontuan hartuko da.**

\***Jarrera desegokiak kontsideratuko dira:** portaera desegokia, gelan parte hartze ez edukitzea, eguneroko lanak ez egitea, jasotzen diren lanak epean ez entregatzea, gelan lana ez egitea, kontroletara ez aurkeztea eta kontrolak hutsik ustea eta abar. Ebaluazio-notaren jaitsiera eragin dezake, puntu bat arte.

\*\***EBALUAKETA GAINDITZEKO NOTA MINIMOA 5 DA.** BESTELA ERREKUPERAZIOA EGIN BEHAR DA.

**EBALUAKETA BAKOITZAREN ERREKUPERAZIOA**

\*Ebaluaketaren emandako eduki guztiak sartzen dira

\*Errekupeazio-azterketaren lortutako nota, ebaluaketa horren nota izango da.

\* Errekupeazioa ez bada gainditzen ohiko deialdian beste aukera bat dago errekupeatzeko.3.ebaluaketaren errekupeazioa, ohikoan, egiten da.

**BULETINEAN AGERTUKO DEN EBALUAKETA BAKOITZAREN NOTA EDOTA ERREKUPERAZIOAREN NOTA**

\*Derrigorrez **zenbaki osoa** jarri behar da, beraz notak borobildu behar dira. Horretarako ondoko irizpideari jarraituko zaio:

" **Hamartarrekin dituzten notak beheko zenbakira borobilduko** dira: 5,2 edo 5,5 edo 5,7 notak 5 zenbakiarekin adieraziko dira".

\*\***Irakasleak koadernoan ebaluazioaren benetako nota (hamartarrekin) gorde egingo du, ikasturtearen bukaeran batez besteko nota kalkulatzeko.**

**BULETINEAN AGERTUKO DEN AMAIERAKO NOTA**

Hiru ebaluaketaren **batez bestekoa** da eta hau egiteko kontuan hartzen da:

\* Erabiltzen dira **ebaluaketen lortutako notak hamartarrekin**, ez buletinean agertzen direnak.

\*Hiru ebaluaketetan **4 bakarra** onartzen da. (**Bi ebaluaketa 4- rekin, ikasgai osoa gainditu gabe geratzen da**).

•Nota goraka borobiltzen da hiru ebaluaketen azterketak bere momentuan gaindituta badaude (1.deialdiko azterketa)

**OHIKOA EGITEN DA** : a) 3. ebaluaketaren erreperazioa, ohikoan, egiten da.

b) Ebaluaketa bakarra gainditu gabe badago, bi aukera dago erreperatzeko:

b.1) Gaintitu gabeko ebaluaketaren azterketa egitea eta lortutako nota ebaluaketa horren nota izango da.

b.2) Ikasgai osoko azterketa egin eta ikasgaiaren nota azterketarena da.

c) Bi edo hiru ebaluaketa gaintitu gabe (nota  $\leq 4$ ) azterketan ikasgai osoa egiten da eta ikasgaiaren nota azterketarena da.

**GAINDITZEKO NOTA MINIMOA 5 DA. BESTELA EZ-OHIKOA EGIN BEHAR DA.**

### **EZ-OHIKO DEIALDIA (EKAINEAN)**

- Ikasgai osoaren edukiak sartzen dira.
- Nota azterketarena da.
- Gaintitzeko nota minimoa 5 da

### **NOTA IGOTZEKO AUKERA**

#### Kurtsoan zehar

Ebaluaketa bakoitzean egindako kontrolak kontuan hartzen dira. (NOTA1)

#### Kurtsoaren amaieran

- Kurtso amaieran (ohiko frogan) egingo da eta **ikasgai osoko azterketa** izango da.
- **Lortutako nota izango da ikasgaiaren azken nota.**
- Nota igotzeko azterketa eta ohiko azterketa desberdinak izan daitezke.

**OHARRA**: Nota igotzera aurkezten den ikasleak nota hobetuko ez duela ikusiko balu, lehenengo ordu-erdian azterketa entregatu gabe alde egin lezake.

### **GAINDITU GABEKO IKASLEEN ERREKUPERAZIOA**

Ikasgai osoko azterketa egin behar duten ikasleak hauek izango dira:

- 1. mailako fisika-kimika ikasgaia gaintitu gabe duten 2. mailako ikasleak. Nota azterketarena izango da
  - Batxilergoko modalitatea aldatu duten ikasleak edo ez egiteagatik prelatzioaren ikasgaia 1. mailan. Nota azterketarena izango da.
- ✓ Kurtsoan zehar bi deialdi egingo dira eta ikasgai osoa egingo da bakoitzean.
- ✓ Edukiak aurreko ikasturtekoak izango dira.
- ✓ Gaintitu gabekoen azterketa eta modalitate aldaketaren azterketa desberdinak izan daitezke.
- ✓ Azterketak gaintitzeko beharrezkoa da fisika zatia eta kimika zatia gaintitzea.